

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
40/2012	R25/2016	2016-12-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-helbidea

Ebazpena: R25/2016

Espedientea: 40/2012

Vitoria-Gasteiz, 2016ko abenduaren 28a,

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Gabriel Casado Ollero jauna batzordeburu eta Isaac Merino Jara jauna eta Javier Muguruza Arrese jauna batzordekide dituenak, honako hau

ERABAKI DU

Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren arteko eskumen-gatazka negatiboaren gainean, zeina automatikoki planteatutzat ematen baita desegindako 2 ENTITATEAREN oinordeko unibertsala den 1 ENTITATEAK (IFZ -----) erakundearen egoitza fiskalari eta 2009ko ekitaldiari dagokion Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araudiari eta ordainarazteko eskumenari buruz Arbitraje Batzordean aurkeztutako jakinarazpenarekin. Arbitraje Batzorde honen aurrean izapidetu da 40/2012 espediente zenbakiarekin, Gabriel Casado Ollero jauna txostengile dela.

I. AURREKARIAK

1.- 2012ko azaroaren 6ko idatziaren bitartez, 1 ENTITATEAK (IFZ -----) eskumen-gatazka negatiboa planteatu zuen Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren (ZAEA) eta Bizkaiko Foru Aldundiaren (BFA) aurrean, erakundearen egoitza fiskalari zegokionez eta, horren ondorioz, 2009ko ekitaldiari dagokion BEZaren araudiari eta ordainarazteko eskumenaren

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
40/2012	R25/2016	2016-12-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-helbidea

gainean, kontuan harturik ez zerga-administrazio batek eta ez besteak ez duela bere burua eskudun ikusten aipatutako ekitalditik eratortzen den Balio Erantsiaren gaineko Zerga itzultzeko.

2.- Espedienteak honako aurrekari hauek ditu:

- a) 2 ENTITATEA Sevillan eratu zen 2005eko martxoaren 9an; akzioen % 60 3 ENTITATEArenak ziren eta gainerako % 40 4 ENTITATEArenak; 2009ko urriaren 15ean 3 ENTITATEA bihurtu zen enpresako bazkide bakarra. Enpresaren xedea Huelvan parke eoliko bat eraikitzea eta ustiatzea zen; Sevillan finkatu zen enpresaren egoitza soziala eta fiskala, harik eta 2010eko otsailaren 19ko eskritura publikoaren bitartez bere egoitza fiskala Bizkaira lekualdatu zuen arte.
- b) Enpresak 2009ko ekitaldiko 1., 2., 3. eta 4. hiru hilekoetako Balio Erantsiaren gaineko Zergari (aurrerantzean, BEZa) zegozkion deklarazioak aurkeztu zituen, 303 ereduan, bai eta urteko laburpena zehazten duen 390 eredua ere, Sevillako ZAEAREN aurrean, 2005ean eratu zenetik egiten ari zen bezalaxe, ulertzen zuelako huraxe zela bere egoitza fiskalari zegokiona; gertatu zen jasandako BEZaren kuota kengarriak handiagoak izan zirela aldi guztietan sortutako kuotak baino, eta, ondorioz, 2009ko azken hiru hilekoari zegokion deklarazioak 1.939.677,03 euroko itzuli beharreko kuota zehazten zuela.
- c) Euskadiko ZAEAREN Ordezkaritzako Zerga Kudeaketako Eskualdeko Bulegoak, 2010eko ekainaren 9an, egiaztapen mugatuko prozedura bati ekitea erabaki zuen 2009an praktikaturako BEZ kenkariak aztertzeke xedez eta eskatutako BEZaren itzulketa bidezkoa zen edo ez ikusteko.
- d) 2011ko urtarrilaren 20ko datarekin, Euskadiko ZAEAREN Ordezkaritza Bereziak jakinarazi zion entitateari ikuskaritza jarduketak hasiko zituela

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
40/2012	R25/2016	2016-12-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-helbidea

2009ko ekitaldiko BEZari buruz, eta adierazi zion ikuskaritza prozedura hasteak aurrez abiarazitako egiaztapen mugatuko prozedura amaitzea zekarrela.

- e) 2011ko azaroaren 29ko Erabakiaren bitartez Euskadiko ZAEAREN Ordezkaritza Bereziaren Eskualdeko Ikuskatzaileak 2009ko 1., 2., 3. eta 4. aldietako BEZaren behin betiko likidazioa diktatu zuen eta 2009ko 1., 2. eta 3. hiruhilekoetan praktikaturako BEZaren konpentsazioak ukatu zituen, bai eta 4. hiruhilekoari zegokion adierazpenaren ondoriozko itzulketarako eskubidea ere, iritzi izan baitzion 2 ENTITATEAK eratu zenetik Bizkaiko 1 HELBIDERA lekualdaketa egin zuen arte, –2010eko otsailaren 19ko eskrituraren bitartez– bere egoitza fiskala beti toki eta udalerrri berorretan eduki zuela eta, hortaz, hizpide ditugun 2009ko BEZaren deklarazioak Bizkaiko Foru Ogasunaren aurrean aurkeztu behar zituela eta beroni dagokiola, ondorioz, zergaren ordainarazpena eta entitateak formulaturako itzulketa eskariari buruz (...) ebazteko eskumena (...), ZAEAKo organoek ez dutelako eskumenik auzi horretan sartzeko eta eskaturako itzulketaren gainean erabakirik hartzeko».
- f) Aurreko hori ikusirik, entitateak, 2012ko uztailaren 18an, BFAREN aurrean aurkeztu zituen deklarazio berberak, eta, bide batez, 2009ko ekitaldiko lehen hiru hiruhilekoetatik ondorioztatutako kuoten konpentsazioa eta urteko deklaraziotik eratorritako itzulketa eskatu zituen.
- g) BFAK, 2012ko urriaren 2ko Erabakiaren bitartez, ezezkoa eman zion, era berean, aurkeztutako itzulketa eskaerari, irizten ziolako aipaturako Foru Aldundian zituzten aurrekariak kontuan hartuta, «subjektu pasibo horri ez zegokiola tributazioa Bizkaiko Lurralde Historikoan egitea».
- h) Eskaturako itzulketa egiteko ez administrazio batek eta ez besteak eskumenik ez dutela iritzi ondoren eta hilabete baino gehiago igaro denez BFAK itzulketari ezezkoa ematen zion jakinarazpena jaso zenetik eta bi administrazioetako ezeinek ez duenez eskumen-gatazkarik aurkeztu, 2012ko azaroaren 6ko datarekin, entitateak egoeraren berri

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
40/2012	R25/2016	2016-12-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-helbidea

eman dio Arbitraje Batzordeari, beronen Erregelamenduko 13.3 artikuluan aurreikusitakoaren babesean, eskumen-gatazka automatikoki planteaturik dagoela uler dadin entitatearen egoitza fiskalari buruz, eta, horrenbestez, 2009ko ekitaldiko BEZaren araudiari eta ordainarazpenari dagozkion gorabehera guztietan, hartara, eskudun deklaratzan duten Administrazioak erabakitze modua izan dezan eskatutako 1.939.677,03 euroko zenbatekoaren itzulketa (...)».

3.- Espedientetik ondorioztatzen da, era berean, Euskadiko ZAEAREN Ordezkaritza Bereziaren Eskualdeko Ikuskatzaileak 2011ko azaroaren 29an diktatutako likidazioaren aurka entitateak 2011ko abenduaren 28ko datarekin erreklamazio ekonomiko-administratiboa jarri zuela Euskadiko Erregioetako Auzitegi Ekonomiko Administrazioaren aurrean. Auzitegi honek, 2014ko maiatzaren 28ko Ebazpenaren bitartez, entitatea eratu zen datatik zergapekoaren egoitza fiskala Bizkaira aldatzea sustatzera zuzendutako errolda-egiaztapen jarduketak eta, era berean, ZAEAK jarraitutako eta eskatutako itzulketa ukatzen zuen Likidazio Erabakian amaitzen ziren ikuskaritza-jarduketak aztertu ostean, EAEAK bada, azkenik, onartu egin zuen erreklamazioa eta entitatearen eskubidea aitortu zuen «bere aldeko saldoaren itzulketa eskatzeko, Zerga Administrazioaren Estatu Agentziari, berori zelako 2009ko ekitaldiko Balio Erantsiaren gaineko Zerga ordainarazteko ahalmena zuen titularra, esandako ekitaldi horretan sortu baitzen erreklamatzaileraren (...) aldeko saldoa. Horrenbestez, kudeaketa bulegoak eskaera izapidetu eta ateratzen den zenbatekoa itzuli beharko du, dagozkion interesekin».

Euskadiko EAEAK, beste arrazoibide batzuetan ez ezik, bere Ebazpena funtsatzen du esanez «Ekonomia Itunak berriazko prozedura bat ezartzen duela Administrazio batetik bestera egoitza fiskalaren aldaketa egiteko eta, era berean, Arbitraje Batzordearen esku-hartzea aurreikusten duela administrazio artean ados ez leudeken kasuan. Ez dago aurreikusita –erantzen du EAEAK–

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
40/2012	R25/2016	2016-12-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-helbidea

egoitza aldebakartasunez aldatu daitekeenik ekitaldi bateko BEZaren izaera orokorreko egiaztapen bat egitera zuzendutako ikuskaritza prozedura baten baitan, nahiz eta zantzu asko egon adierazten zutenak egoitza fiskala ez zegoela behar bezala zehaztuta eta Bizkaia zela kokapen zuzena. Egoitza-aldaketaren prozedura behin amaitu denean soilik aldatu daiteke tributuen ordainarazpenerako eskumena eta ez aurretik. Inplikaturako Administrazioetako batek (EAO), esandako prozedura alde batera utzita, aldebakartasunez jarduteak segurtasun juridikoari eraso egingo lioke (Bigarren Arrazoibidea).

4.- 2016ko azaroaren 4ko bilkuran, Arbitraje Batzordeak automatikoki planteaturako gatazka izapidetzea onartu zuen eta, bere Erregelamenduen 13. artikuluen 3. atalarekin bat etorririk, gatazkaren planteamendua jakinarazi eta berorri atxikitako dokumentazioa helarazi zien entitateari eta bi administrazioei, eta hilabeteko epea eman zien berori ebazteko behar diren datu eta agiri guztiak ekar ditzaten.

5.- Bizkaiko Foru Aldundiak ez zuen dokumentaziorik aurkeztu Arbitraje Batzordean 2016ko azaroaren 23an erregistratu zen idazkian, bai, ordea, alegazioak: kasuari aplikatu behar litzaiokeen araudia aipatzen zuen (Ekonomia Ituneko 27.Bat eta 43.Lau.b) artikulua, Zergen Lege Orokorraren abenduaren 17ko 58/2003 Legearen 48. artikulua, eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 47. artikulua), 2009an entitateak aitortutako zerga-egoitza lurralde historiko erkidean zegoela, eta, azkenik, Arbitraje Batzorde honek 12/2015 gatazkaren gainean emandako apirilaren 12ko R3/2016 Ebazpenaren 8. eta 9. oinarrietan ezarritakoa erreproduzitu eta gero, hau azaltzen zuen:

- a) Arbitraje Batzordeak apirilaren 12ko 3/2016 Ebazpenean ezarritakoaren arabera, zergadunaren zerga-helbidearen mende dauden eskumen itunduak mugatzeko orduan «zergadunak berak aitortu duenari begiratu

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
40/2012	R25/2016	2016-12-28	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen zerga-helbidea</i>

behar zaio, egiazkotasun-presuntzioa duen aitormena izaki, eta, jakina, zerga-egoitza bere lurraldeari dagokiola uste duen administrazioak, egoki irizten dion atzerako eraginarekin, zerga-egoitza zuzentzeko prozesua abiaraztearen kalterik gabe, noski». Eta ondorioztatzen du ezen «aipatu berri dugun Arbitraje Batzordearen doktrina (...) ikusita, entitateak aitortu duen zerga-egoitzaren arabera eskumena dagokion administrazioak —kasu honetan, Zerga Administrazioko Estatu Agentzia— uste badu aitortutako zerga-egoitza horretan ez dela *«zentralizatuta euren administrazio-kudeaketa eta negozioen zuzendaritza»*, lehenik eta behin entitatearen zerga-helbidea zuzentzeko prozedura abiatu behar da Ekonomia Itunaren 43. artikuluan ezarritakoari jarraituz, eta, behin hori ebatzita, prozedura horretan erabakitakoarekin bat zehaztuko da zein den entitatearen 2009. urteko balio erantsiaren gaineko zerga ordainarazteko (edo itzultzeko) administrazio eskuduna, ondorioztatzen den atzeraeraginezko dataren arabera» (4. alegazioa).

- b) Horrez gain, BFAk Ekonomia Itunaren 66.Hiru artikuluan [«67. artikulua hirugarren zenbakia» aipatzen du, okertuta] ezarritakoa oinarri hartu eta esaten du «arbitraje gatazka ebazten ez den bitartean, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak bere eskumenekoa izanez jokatzeko jarraitu behar zuen, hori baita entitateak aitortutako zerga-egoitzari dagokion administrazioa, eta beraz, berak itzuli behar zituen eskatutako zenbatekoak. Aipatutako Estatu Agentziak, baina, ez du manu hori bete eta itzulketa ukatu dio entitateari, Ekonomia Itunean esku hartu duten administrazioen artean adostutako eskumen-banaketaren arabera beraren egitekoa zenean, eta kalte ekonomikoak eragin dizkio, 67. artikuluan [66. artikuluan, esan behar luke] ezarritakoa errespetatu izan balitz ez zena gertatuko. Beraz, Bizkaiko Foru Aldundi honek ezin zuen bere gain hartu legez Zerga Administrazioko Estatu Agentziari dagokion ordainarazteko eskumena» (5. alegazioa).

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
40/2012	R25/2016	2016-12-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-helbidea

- c) Aurreko guztia kontuan hartuta, BFAk ondorioztatzen du ezen «entitateak aitortutako zerga-helbideari dagokion administrazioa Zerga Administrazioko Estatu Agentzia denean, oraingo honetan gertatzen den moduan, administrazio horrek zergadunari itzuli egin behar ziola eskatutako zenbatekoa, eta, aitortutako zerga-egoitza hori dela-eta ados ez bazegoen, zerga-helbidea zuzentzeko prozedura abiatu behar zuela indarreko Ekonomia Itunaren 43. artikuluan ezartzen denari jarraituz».

Alegazioei amaiera emanez, BFAk Arbitraje Batzordeari eskatzen dio ebatz dezala gatazka «kontuan hartuta ZAEARI dagokiola auzitan den eskumena, ez duelako abiarazi entitatearen zerga-helbidea zuzentzeko inolako prozedurarik».

6.- 2016ko azaroaren 30eko idatziaren bitartez, 1 ENTITATEAK, 2 ENTITATEAREN oinordeko unibertsala denez, honako hau jakinarazi zion Arbitraje Batzordeari:

- a) Euskadiko Erregioetako Auzitegi Ekonomiko Administratiboak onartzea erabaki zuen, 2014ko maiatzaren 28an, entitateak bere garaian jarritako erreklamazioa, Euskal Herriko ZAEAREN Delegazio Bereziako zerga kudeaketarako eskualdeko Ikuskatzaileak diktatutako BEZa itzultzea ukatu eta likidazioa agintzen zuen ebazpenaren aurka; Auzitegi horrek «eskatzaileak Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren aurrean bere aldeko saldoa itzultzea eskatzeko duen eskubidea aitortzea» ebazten du (...). Horrenbestez, kudeaketa bulegoak eskaera izapidetu eta ateratzen den zenbatekoa itzuli beharko du, dagozkion interesekin».
- b) Euskadiko Eskualdeko Auzitegi Ekonomiko Administratiboaren ebazpen hori behar bezala egikaritu zuela ZAEAREN Delegazio Bereziak, eta eskatutako BEZAREN itzulketa egin zuela.
- c) Horregatik guztiagatik, «2012ko azaroaren 6an Arbitraje Batzorde honi

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
40/2012	R25/2016	2016-12-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-helbidea

eskumen-gatazka automatikoki aurkeztutzat emateko xedez zuzendutako idazkian eskatzen zena konpondu denez, jakintzat hartu dezala bere egoitza fiskalari eta, zehazki, 2009. urteko ekitaldiari zegokion BEZaren araudiari nahiz ordainarazpenari buruzko 40/2012an (...) gatazkan atzera egitea».

7.- Euskadiko ZAEako ordezkariak, 2016ko abenduaren 13an erregistratutako idazkiaren bitartez, espedientea osatzen duten dokumentuak igorri zizkion Arbitraje Batzorde honi, eta adierazi zuen 2014ko maiatzaren 28ko Euskadiko EAEaren Ebazpena egikaritzeko 2014ko urriaren 20ko Erabakiaren indarrez, «likidazioa diktatu zela, zergadunari 2009ko BEZaren itzulketarako eskubidea aitortzen ziona, zegozkion berandutza-interesak barne, baina itzulketa horrek ez duela esan nahi berea zenik hori egiteko eskumena, izan ere, aipatutako Euskadiko EAEaren ebazpena betetzearren besterik ez baitzen egin».

8.- Gatazka sustatu zuen entitateak (Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeko Araudiaren –aurrerantzean, EIABA– 13.3 artikulua) eta bi administrazio interesdunek aurkeztutako idazkiekin Arbitraje Batzorde honek baditu prozedura ebazteko beharrezko datu eta dokumentu guztiak, eta beraz, beste izapiderik egin gabe eta ekonomia, arintasun eta eraginkortasunaren printzipioei jarraituz (Ekonomia Itunaren 67. artikulua) gaurko eguna jartzen du eztabaidatzeko, zeinetan interesatuek aipatutako ekintzak, alegazioak eta frogak baino ez baitira kontuan hartuko (azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 84.4 artikulua, eta egun indarrean den Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 82.4 artikulua).

II ZUZENBIDEKO OINARRIAK

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
40/2012	R25/2016	2016-12-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-helbidea

1.- Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren arteko eskumen-gatazka negatibo hau automatikoki aurkeztutzat ematen da (Arbitraje Batzordearen Araudiko 13.3 artikulua) 1 ENTITATEAK 2012ko azaroaren 6an aurkeztutako jakinarazpenaren ondoren «zergadunaren egoitza fiskalarekin, eta beraz, 2009 ekitaldiko BEZari zegokion araudi eta ordainarazpenarekin erlazioan», entitateak Arbitraje Batzorde honi ebaztea eskatzen ziolarik «zein den ordainarazpena dagokion administrazio eskuduna».

2.- Arbitraje Batzorde honek espedienteak izapidetzean pairatzen duen atzerapen jasanezinak entitate sustatzaileari bide eman zion gatazka aurkeztu zenetik (2012ko azaroaren 6a) izapidetzera onartu zenerako (2016ko azaroaren 4a) lau urteko tarte horretan BEZa gehi zegozkion interesak itzultzeko zuen eskubidea egikaritzeko; hortaz, entitateak eskaera egin zion 2016ko azaroaren 30ean erregistratutako idazkian Arbitraje Batzorde honi, eta esaten zion ezen «eskumen-gatazkaren zioa konpondu denez (...) jakintzat har dezala bere egoitza fiskalari eta, zehazki, 2009ko ekitaldiari zegokion BEZaren araudiari eta ordainarazpenari buruzko 40/2012 gatazkan atzera egitea (...)».

Dena dela, aipatu beharrean gara zergapekoa legitimatuta dagoela Arbitraje Batzordearen aurrean eskatzeko eskumen-gatazka negatiboa automatikoki planteatzea «ezein administrazioek bere burua eskudun ikusten ez duen kasuetan», horretarako nahikoa izanik «gorabehera hori Batzordeari jakinaraztearekin», ezarriak diren epeen barruan, jakina (EIABAko 13.3 artikulua). Baina horrek ez du inolaz ere esan nahi gatazka sustatu duen zergapekoak kontrakoa dioen jakinarazpen bat (kasu honetan, 40/2012 eskumen-gatazkan atzera egitearen jakinarazpena) igorrita gatazkaren xedea «automatikoki konponduta geratzen denik», eta, ondorioz, atzera egiteagatik arbitraje-prozedura amaitzen denik.

Noski, ulergarria da zergapekoa arbitraje-prozeduran «interes gabe» sentitzea, legitimitate osoz gainera, gauzatu izan duenez interes legitimoa eta

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
40/2012	R25/2016	2016-12-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-helbidea

burutu duenez Arbitraje Batzordearen aurrean gatazka sustatzera bultzatu zuen eskubide substantiboa (bere alde metatutako BEZ saldoak gehi atzerapenengatik zegozkion interesak itzultzeko eskubidea); alabaina, horrek ez du esan nahi gatazkaren xedea aldi berean eta automatikoki konpondua denik, 1 ENTITATEAK hala ulertu badu ere, zeren garbi dago auzitan dagoena ez dela partikular baten interesa eta BEZa itzulia izateko duen legezko eskubidea, baizik eta entitatearen egoitza fiskala nola erabakitzen den, Ekonomia Itunarentzat hori baita kasu honetan konexio-puntua balio erantsiaren gaineko zerga ordainarazteko eskumenak Estatuko Ogasun Publikoaren eta, oraingo kontuan, Bizkaiko Lurralde Historikoaren artean banatzeko (27.Bat.Hirugarrena artikulua).

3.- Bestetik, gogoratu beharra dago Arbitraje Batzordeari emandako eginkizunen eta eskumenen artean (Ekonomia Itunaren 66. artikulua eta EIABAREN 3. artikulua) ez dagoela zergapekoen eskubideak zuzen-zuzenean babestea, nahiz eta ez diren albora utzi behar; areago oraindik, oso kontuan hartu beharrekoak dira planteatutako eskumen-gatazkak ebazteko orduan. Arbitraje Batzorde hau jakitun da zergei buruzko administrazioen arteko gatazketan «beti aurki daitezkeela euren zerga-egoera gatazkari buruzko ebazpenaren mende edo baldintzapean luketen interesdun partikularrak, Auzitegi Gorenak ohartarazi ohi duen bezala, eta, zergadunak direnez bezainbatean, eskubidea dute horregatik dagozkien eskubide eta bermeak errespetatuak izan diezazkieten» (2013ko apirilaren 11ko epaia, 17/2012 errekurtsu zenbakiduna, 2. ZO; eta 2013ko urriaren 17ko epaia, 538/2012 errekurtsu zenbakiduna, 3. ZO). Are gehiago horren atzean dagoen arbitraje-gatazka, aldi honetan gertatzen den moduan, BEZaren itzulketa denean, zeinetarako, antza denez, eskubidea daukan.

Kasu honetan, gertatzen da, gainera, BEZa itzultzeko eskubidearen aitormena ez zela arbitraje-prozeduratik eratorri; aitzitik, hortik aparte etorri zen,

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
40/2012	R25/2016	2016-12-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-helbidea

gatazka izapidetzea onartzera iritsi baino lehen gainera, hots, ZAEAK Euskadiko EAEAREN 2014ko maiatzaren 28ko Ebazpena betetzetik etorri zen; eta, gogora dezagun, han ez zen, bistakoa den bezala, eskumenei buruzko gatazkarik ebazten; aitzitik, egin zen bakarra entitateak 2009ko ekitaldiko BEZa itzultzeko eskariari uko eginez Euskadiko ZAEAREN Ordezkaritzako Eskualdeko Ikuskatzaileak diktatutako Likidazio Erabakiaren legezkotasuna administrazio bidetik berraztertzea izan zen.

Hortaz, bada, eskumenei buruzko gatazka negatiboa ez da konpondu hori sustatu zuen sozietateak «atzera egiteagatik» edo gerora agertutako «interes ezagatik», nahiz eta gatazkari amaiera emateko nahikoa izango zen bi administrazioetako batek bere egitea hasieran biek uko egiten zioten eskumena. Eta hori guztia, gainera, edozein zitekeelarik eskumena onartzeko zioa, izan ebazpen administratibo edo judicial irmo bati men egiteagatik, izan arbuiazen zen eskumenaren titulartasunaren gaineko gertatzezko iritzi-aldaketagatik, edo beste edozein zio baliagarriren edo legez onargarriren batengatik. Hala gertatu izan balitz, Arbitraje Batzordeak ebatzi eta amaiera eman beharko zion gatazkari, normala den bezala; alabaina, ez du eskumenik zerga-administrazioen arteko gatazka bat ofizioz planteatzeko, ez eta materialki desagertua den gatazkaren gaineko arbitrajearen auziari eusteko eskumenik ere.

Baina ZAEAK berariaz nabarmentzen du 1 ENTITATEARI aitortutako BEZ itzulketak «ez duela esan nahi hori egiteko eskumena bere egin behar duenik, aipatu Euskadiko EAEAREN ebazpena betetzeagatik baino ez zelako egin».

Beraz, ebazteke dago eta bere horretan mantentzen da eskumenei buruzko gatazka negatibo honen xedea, izan ere, entitateak adierazi bezala, «2009ko ekitaldiari dagokion BEZAREN araudia eta ordainarazteko eskumenaren arabera zergapekoaren egoitza fiskala zein den erabaki behar baita», eta

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
40/2012	R25/2016	2016-12-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-helbidea

berorren ondorioz zehaztu beharko da bietako zein zerga-administrazio den eskatutako BEZaren itzulketa hori egiteko eskumena duena.

4.- Estatuko Administrazioa (ikus 2011ko azaroaren 29ko Likidazio Erabakia, 44. orrialdea, 62tatik) eta Bizkaiko Foru Aldundia (ikus 2016ko azaroaren 23ko alegazioak, 3. orrialdea) bat datoz kasu honetan BEZa ordainarazteko eskumena subjektu pasiboaren zerga-egoitzaren arabera soilik erabaki behar dela (Ekonomia Itunaren 27.Bat artikularen hirugarren erregela), eta ez eragiketa tokiaren arabera edo eragiketa bolumenaren arabera, (Ekonomia Itunaren 27.Bat artikularen lehen eta bigarren erregelak) sozietatearen 2009. eta horren aurreko urteetako eragiketa bolumena zero zelako, jarduera hasi gabe baitzegoen. Horrenbestez, bada, 2009ko ekitaldiko BEZa ordainarazteko eta, hala badagokio, itzultzeko eskumena ekitaldi horretan sozietatearen zerga-egoitza zegoen lurraldeko administrazioari dagokio. (Ikus, antzeko kasu batean, urriaren 13ko gure R4/2014 ebazpena, 2/2011 espedientearena, 3. ZO; Auzitegi Gorenak 2015eko abenduaren 7ko epaian berretsia, 967/14 errekurtsio-zenbakiduna).

Halaxe ondorioztatzen da Ekonomia Itunaren 27.Bat.Hirugarrena artikulua aipatu berritik:

«27. artikulua. Zergaren ordainarazpena. Bat. Balio erantsiaren gaineko zerga ordainarazteko, honako arau hauek bete behar dira:

(...)

Hirugarrena.- Aurreko urtean 7 milioi euro baino eragiketa-kopuru handiagoa egin ez duten subjektu pasiboek, eragiketak batean zein bestean eginda ere, zergak Estatuko Administrazioan ordainduko dituzte, zerga-egoitza lurralde erkidean baldin badaukate; eta zerga-egoitza Euskadin baldin badaukate, berriz, dagokion foru aldundian».

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
40/2012	R25/2016	2016-12-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-helbidea

Entitatearen zerga-egoitza zehaztea, hortaz, funtsezkoa zaigu gatazka konpontzeko, eta zalantzarik ez dagoenez 1 ENTITATEAK *aitortutako helbidea* lurralde erkidean dagoela, 2009ko ekitaldiko BEZa ordainarazteko eskumena, hasiera batean, helbide horretako zerga-administrazioari zegokion, hau da, Estatukoari. Eta «eskumen hori ez da zergen bilketaren ahalerako bakarrik, berarekin darama enpresa-jardueretan edo jardun profesionaletan ondasunak saltzen edo zerbitzuak eskaintzen hasi aurretik jasandako edo ordaindutako kuotak itzultzeko egin beharra ere [[Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legearen \(abenduaren 29ko BOE\) 111.3 artikulua, 115. artikuluari lotua](#), eta Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Agindua, abenduaren 14ko Bizkaiko Aldizkari Ofiziala]» (Auzitegi Gorenaren 2015eko abenduaren 7ko epaia, 967/14 errekurtsio zenbakiduna, 2. ZO).

5.- Euskadiko ZAEAREN Ordezkaritzako Eskualdeko ikuskatzaileak 2011ko azaroaren 29an diktatutako Likidazio Erabakian, bere iritziz, 2 ENTITATEAREN administrazio-kudeaketa eta zuzendaritza efektiboa gauzatzen zen tokiaren inguruabar erabakitzaileak xehetasun osoz aztertu eta azaldu ondoren, ondorio batera iritsi zen: «entitatearen zerga-egoitza beti Bizkaia izan da eta, beraz, deklaraturako egoitza aldaketa sozietatearen egoera juridiko-fiskala bere merkataritza-errealitatera egokitu ahal izateko egin da (50. eta 51/62. or).

Eskualdeko Ikuskatzaileak entitateak ikuskaritza-agiriari egindako alegazioei erantzuten die (beste batzuen artean dioenean zerga-egoitza Zergei buruzko Lege Orokorrean, Kudeaketa eta Ikuskaritzako Erregelamendu Orokorrean eta Ekonomia Itunean ezarritako prozeduraren bitartez aldatu behar dela) esanez egiaztatze eta ikerketako ikuskatze-jarduketaren bidez «2009ko balio erantsiaren gaineko zergaren ordainarazpena nori zegokion» zehaztea bilatzen zela (42/62 or.) baina horrekin «ez dela aldatzen entitatearen zerga-egoitza, horretarako, zergapekoak adierazten duen bezala, ZLOn, KIEOn eta

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
40/2012	R25/2016	2016-12-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-helbidea

Ekonomia Itunean ezarritako prozedura jarraitu beharko bailitzateke, baizik eta jarduketa honen xedea (...) 2009ko ekitaldiko balio erantsiaren gaineko zerga egiaztatzea dela». Eta eransten da: «jarduketan aztertu behar den lehen puntua ordainarazpena egiteko eskumena da, alegia ea ZAEA den esandako ekitaldiko tributua eskatzeko eskuduna, ala, kontrara, foru aldundia den. Eta azterketa hori egitean, Ekonomia Ituneko (...) 12/2002 (...) Legearen 27. artikulua aplikaturik, aztertu behar da zergapekoaren egoitza fiskala, kontzeptu horrek erabakitzen baitu tributua honetan nori dagokion zerga ordainaraztea. Espediente honetan egin den zerga-egoitzaren azterketatik ondorioztatzen da – dio Likidazio Erabakiak– 2009ko ekitaldian zerga-egoitza Bizkaian zegoela eta, hortaz, aurrez aipatutako 27. artikulua aplikazioz, ordainarazpena Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio» (60. eta 61/62 or.). «12/2002 Legeko 43. artikulua aplikazioaren inguruan –eransten du Eskualdeko Ikuskatzaileak– eta zerga-egoitzari buruzko administrazioen arteko desadostasunak Arbitraje Batzordean ebatzi beharri dagokionez, berriro adierazi behar da jarduketa honen bitartez ez dela zergapekoaren egoitza fiskala aldatzen; aitzitik, organo honek erabaki duen bakarra da ez dela ZAEA esandako tributua ordainarazpenerako eskumena duen Administrazioa». «ZAEAk ezin ditu tributua baten aplikaziotik eratorritako kopuruak itzuli, haren ordainarazpena egiteko eskumenik ez badu» (61/62 or.).

6.- Ez da eztabaidatzen, entitateak 2009ko ekitaldian metatutako BEZaren saldoa itzultzeko eskaria ebazteko orduan, ZAEAk baloratu behar zuen lehenengo puntua, hain zuzen ere, esandako ekitaldian zerga hura ordainarazteko bere eskumena zela; balorazio hori ezinbestekoa baita kontuan izanik eskumena izatea alde aurreko baldintza eta funtsezko betebeharra dela ekintzak baliozkoak eta legezkoak izango badira, eta Administrazioari dagokiola legeak egotzitako eskumenak egikartzeko ahala ematen dion alde aurreko izateko baldintza egiaztatzeko zama, kasu bakoitzean.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
40/2012	R25/2016	2016-12-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-helbidea

Hala ere, ez «tributuak aplikatzeko prozeduretan sortzen diren auzi guztiak berariaz ebazteko obligazioak [eta] esandako ebazpena espresuki jakinaraztekoak» (ZLOko 105. artikulua), ez-eta, aldez aurretik, norberaren ebazteko eskumena baloratzeko zamak, ez die baimena ematen Zerga Administrazioei, Ekonomia Itunaren 43. Bederatzi artikuluan [zeina ZAEaren eta Foru Aldundien artean garatu baitzen, elkarrekin adostuta, 2006ko maiatzaren 18ko bileran onartutako «Lan-taldearen ondorioak egoitza aldaketei buruz» izeneko agirian] zergapekoen egoitzari buruzko desadostasunak ebazteko aurreikusitako adiskidetasunezko prozedura saihesteko edo, kasua hala bada, bidegabeki bertan behera uzteko, deklaraturako egoitza fiskala aldebakartasunez zuzentzeko eskumena bere gain hartu eta beste Administrazio baten lurraldean kokatua irizteko.

Bi zerga-administrazioek badakite zein den hasieran zergapekoaren zerga-helbidea, entitateak horretaz egiten duen aitormen edo jakinarazpenari esker, eta, hasiera batean behintzat, aitortutako zerga-helbide horri lotu beharko dira administrazioak, ez bakarrik administrazio publikoek herritarrekin dituzten harremanak fede onaren printzipioan oinarritzen direlako [azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 3.1 artikulua, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 3.1.e) artikulua], herritarrek zerga-betebeharrak zuzenki eta legearen barruan betetzen dituztela pentsatzera bultzatzen baitu, zergapekoak aurkeztutako edozein aitormenetan jasotzen diren egitezko datuak ziurrak eta egiazkoak direnaren legezko presuntzioagatik baizik [TLOren 108.4 artikulua eta Bizkaiko Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren (BZFAO, aurrerantzean) 106.4 artikulua]; edo, azken batean, helbide fiskala aitortutako helbide sozialarekin bat etortzearen legezko presuntzioagatik, kontrako frogarik ezean entitatearen administrazio-kudeaketa eta negozioen zuzendaritza zentralizatuta dagoen tokia dela ulertzera behartzen baitu. Hori dela-eta, «legegileak berak identifikatzen du helbide soziala helbide fiskalarekin, aipatu betekizunak (hor izatea administrazio-

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
40/2012	R25/2016	2016-12-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-helbidea

kudeaketa eta negozioen zuzendaritza) emateko baldintzapean betiere, baina horiek ezezagunak direnean helbide sozialari lotu behar gatzazkio zerga-harremanen zioetarako» (Auzitegi Gorenaren 2013ko urriaren 17ko epaia, 538/2012 errekurtsio zenbakiduna, 5. ZO).

7.- Arbitraje Batzorde honek (beste batzuen artean) apirilaren 12ko R3/2016 Ebazpenean 12/2015 espedientearen harira adierazia duen moduan, «helbide soziala bakarra da, eta benetan dena baino ez da; kasu bakoitzean legeen arabera erabakigarriak diren baldintza faktikoen mende dago, eta bere egiazkotasun eta eraginkortasunerako ez dago administrazio interesatuari edo interesatuei jakinaraztearen mende. Administrazio horiek egiazta dezakete zergapekoak aitortua duena egiazkoa edo benetakoa den, zergapekoak helbide aldaketaren berri emateko zain egon beharrik gabe, eta, horrez gainera, jakinarazi zaien zerga-helbidearen aldaketaren eraginkortasuna ere egiaztatu eta atzera egitea erabaki dezakete, aldaketak eraginak sortzen dituen unea finkatuz, zeina inguruabarrak eta helbide berria zehazten duten elementu faktikoez bat egiten dutena izango baita».

Horregatik guztiagatik, administrazioek ontzat emango dute aitortutako zerga-helbidea eta horri lotuko dira, baina ezerk ez die galarazten hori zuzentzeko edota aldaketaren unea (aurreratuz edo atzeratuz) aldatzeko dagozkien egiaztatze-jarduerei ekitea, baldin eta helbide benetako eta eraginkorra denaz zalantzak badituzte edo zergapekoak aurretik jakinarazi gabeko zerga-helbidearen aldaketaren egitatezko ustean baldin badaude. Baina, egitekotan, Ekonomia Itunaren 43.Bederatzi artikuluan horretarako hitzartutako prozeduraz baliatuta egin beharko dute, jakina; artikulua horretan betoa jartzen zaie administrazio baten zein bestearen prozeduren eremuetan aldebakartasunez erabakitako ebazpenei, eta Itunaren aipatutako manuak derrigortzen duen bidea erabiliko dute. Aipatu artikuluan, Sei atalean, agintzen da «zergadunen helbideratzearen gorabeheragatik administrazioen artean

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
40/2012	R25/2016	2016-12-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-helbidea

sortzen diren desadostasunak Arbitraje Batzordean erabakiko dira, aurretik horiei entzun eta gero (...). Hori gertatu arte, egoitza fiskalaren ondoriozko eskumenak lehendik zeukan administrazioaren esku jarraituko du, kasu honetan Estatuko zerga-administrazioaren eskuetan, hain zuzen ere, administrazio horren lurraldean baitago sozietateak aitortutako helbidea.

8.- Arrazoia du, hortaz, Bizkaiko Foru Aldundiak, Arbitraje Batzorde honek 3/2016 ebazpenean agertzen duen doktrinan oinarrituta —horren 8. eta 9. zuzenbideko oinarriak erreproduzitzen ditu— honako hau azaltzen eta ondorioztatzen duenean: entitateak aitortutako zerga-helbidearen arabera eskudun den administrazioak, kasu honetan Zerga Administrazioko Estatu Agentziak, uste badu aitortua den zerga-helbidea ez dela «bere administrazio-kudeaketa eta negozioen zuzendaritza benetan zentralizatzen» dena, lehen-lehenik Ekonomia Itunaren 43. artikuluan aurreikusia denari jarraituz zerga-helbidea zuzentzeko prozedura bat abiarazi behar du, eta horri buruz ebatzi eta bertan jasotzen denarekin bat zehaztu ahal izango da zein administrazio den eskuduna entitatearen 2009ko ekitaldiko balio erantsiaren gaineko zerga ordainarazteko (edo itzultzeko), eta atzera eraginez finkatutako dataren araberakoa izango da».

Pausu bat aurrerago eginez, BFAk Ekonomia Itunaren 66. artikuluko Hiru atalean ezarritakoa transkribatu ondoren, honako hau erasten du: «transkribatutako manu horretatik zera ondorioztatzen da, arbitraje gatazka ebazten ez den bitartean Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren eskumenekoa izaten jarraitu behar zuela, hori baita entitateak aitortutako zerga-egoitzari dagokion administrazioa, eta beraz, eskatutako zenbatekoak hark itzuli behar zituela. Aipatutako Estatu Agentziak, baina, ez du manu hori bete eta itzulketa ukatu dio entitateari, Ekonomia Itunean esku hartutako administrazioen artean aho batez adostutako eskumen-banaketaren arabera beraren egitekoa zenean, eta kalte ekonomikoak eragin dizkio, 67. artikulua (66. artikulua

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
40/2012	R25/2016	2016-12-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-helbidea

esan behar luke) Hiru puntuan aurreikusitakoa errespetatu izan balitz ez zena gertatuko».

9.- Hala ere, ezin dezakegu partekatu Bizkaiko Foru Aldundiak egiten duen Ekonomia Ituneko 66. Hiru artikulua aplikazioa, ez-eta, berorretan oinarrituta, ZAEAri egozten dion ez-betetzea ere.

Batik bat, gogoan izan behar da Arbitraje Batzorde honek Ekonomia Itunean aurreikusitako kasuetan eragina duten zerga-administrazioen arteko gatazkak zuzenbidearen arabera konpontzeko bakarrik duela eskumena, lotura-puntuak zein diren ikusita auzitan dagoen kasu zehatzean eskumena zein administrazioari dagokion erabakitze aldera . Baina ezin dituela, inolaz ere, Zerga Administrazioak ordeztu beroriei soilik dagozkien erabakiak hartzerakoan, ez-eta gatazkan dauden aldeek diktatutako administrazio-egintzak errebisatu edota berorien legezketasunaz edo baliotasunaz inolako irizpenik jaulki ere (Ikus urriaren 19ko 17/2015 Ebazpena, 15/2011 espedientea, 13. ZO).

Baina, hori esan ondoren, argitu behar da aldi honetan izatezko aurrebaldintza falta dela Ekonomia Ituneko 66. Hiru artikulua ezarritako agindua jokoan sartu ahal izateko: «*eskumen-gatazka pizten denean* [ulertu behar da] Zerga Administrazio interesdun baten aldetik». Esku artean dugun kasuan, izan ere, garbi dago EIABAren 13.3 artikuluari jarraituz automatikoki planteatutako eskumen-gatazka negatibo baten aurrean gaudela, hain zuzen ere ez delako izan eragiten zien administrazioetako batek sortua; esan nahi baita, ez Estatuko Zerga Administrazioak [entitatearen zerga-helbidea aldebakarrez zuzentzea erabaki zuen, BEZa itzultzeko eskaera ebazteko eta aurretik hori egiteko eskumena zuen baloratzeko aitzakiaz, Ekonomia Itunaren 43. artikuluan aurreikusten den adiskidetasunezko prozedurara jo beharrean], ez BFAk ere itzulketa egiteko eskumenik ez izatea aldarrikatu ondoren hilabeteko epea baitzeukan Arbitraje Batzordera zuzendu eta gatazka

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
40/2012	R25/2016	2016-12-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-helbidea

sustatzeko (EIABaren 13.3 artikulua). Gainera, nahiko gabi dagoela ematen du ZAEAk eskumenik ez zuelakoan egin ziola uko eskatutako BEZa itzultzeari, eta ez arbitraje-gatazka baten ebazpenaren itxaroan zegoelako, ez Estutako Administrazioak ez Foru Aldundiak ez zuten-eta halakorik planteatu.

Esan gabe doa ZAEAk, kasu honetan, bidegabeki saihestutako adiskidetasunezko prozedura hori abiarazi izan balitz eta BFAk egoitza-aldaketaren proposamena onartu gabe amaitu balitz, entitatearen egoitzari buruzko desadostasunak Arbitraje Batzordean hasiko zirela aztertzen (Ekonomia Itunaren 43. Sei artikulua eta EIABaren 13.1 artikulua). Eta, orduan, behin gatazka piztuta zenean, «zergapekoei zergak kargatu ohi zizkion administrazioak (ZAEA, kasu honetan) [BEZaren ordainarazpena eta itzulketa] bere eskumenekoa izanez bezala jarraitu [behar zuen]». Izan ere, «ez dirudi inolako baliozko arrazoirik dagoenik BEZaren itzulketa eskatzen duen zergapekoari kargatu ohi zion administrazioak bere eskumenekoa izateari uzteko Arbitraje Batzordearen aurrean aurkeztutako gatazka ebatzi edo adiskidetasunez konpontzen zen arte, bere gain hartu behar zuelarik eskatzen zen BEZaren itzulketa, arbitraje-prozedurako ebazpenaren ondorioz eragindako administrazioen arteko zerga-zuzenketak eta -konpentsazioak ezertan galarazi gabe» (urriaren 19ko 17/2015 Ebazpena, 15/2011 espedientea, 15. ZO).

Gertatzen dena da gatazka hau ez zela ZAEAREN eta BFAREN aldetik piztu, eta beraz, ez da ematen Ekonomia Itunaren 66. artikulua aplikatzera eraman dezakeen aurrebaldintza, «*eskumen-gatazka pizten denean*» delakoa. Hori dela-eta, ezin zaio administrazioetako ezeini egotzi kasuari aplikatu ezinezkoa den legezko manu baten ez-betetzea, eta, azken batean, ezin da ere egotzi aplikatu ezinezkoa den manu baten ez-betetzetik entitateari balizko kalte ekonomiko batzuk sortu izana.

10.- Bestelako kontua da, alde batera utzita Ekonomia Itunaren 66. artikuluan eta EIABaren 15.2 artikuluan ezartzen dena eta horren mende geratu gabe,

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
40/2012	R25/2016	2016-12-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-helbidea

BEZaren ordainarazpenerako eskumena egikaritzen zebilen zerga-administrazioak [kasu honetan, ZAEA] itzulketaren bidez kotasuna egiaztatu behar zukeela, eta, hala bazegokion, itzulketa burutu behar zuela, kontuan hartuta kenkarirako eta, hala balegokio, itzulketarako eskubidea balio erantsiaren gaineko zergaren sistema komuneke egiturazko eskakizun bat dela neutraltasun-printzipioa bermatzeko, subjektu pasiboak horrela berreskura ditzakeelako ondasun eta zerbitzuak eskuratzean zergapetutako eragiketei aplikatzen zaizkien kuotak, eta hori funtsezko elementua da kontsumoaren gaineko zerga orokor honetan.

Auzitegi Gorena Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren doktrina bateratuaren ildotik ari da adierazten «jasandako balio erantsiaren gaineko zerga itzultzeko eskubidea ezin da ezinbestean kalteturik atera Estatuko legeriak ezarritako betekizun formalengatik» (Auzitegi Gorenaren 2013ko apirilaren 11ko Epaia, 17/2012 zenbakidun errekurtsua, 3. ZO; eta 2014ko martxoaren 31ko Epaia, 1547/2013 zenbakidun errekurtsua, 3. ZO). Ezta ere «zerga kudeatzeko administrazioen arteko harremanak artikulatzeko eta koordinatzeko Estatuko barne araudiaren konplexutasunagatik, garbi dagoelarik BEZa itzultzeko eskubidea izanik administrazio erantzulea zein den erabakitze behar lukeen arintasun-mekanismoa ez egoteagatik zergadunari kaltetu egiten zaiola itzulketa arrazoizko epe batean egiteko eskubidea, baita bidegabeki atxikitako zenbatekoari legezkiokoen interesak gehituta ere. Sala honen irizpidea da –jarraitzen du Auzitegi Gorenak esaten– BEZetik eratorritako diru-sarrerak jaso zituen administrazioa dela dagozkion itzulketei aurre egin behar diena, dagozkion eskubide eta ekintzak alde batera utzi gabe» (2013ko urriaren 17ko Epaia, 538/2012 zenbakidun errekurtsua, 3. ZO).

11.- Lehen esan bezala, BFAk bete ez delako aipatzen duen Ekonomia Ituneko 66.Hiru artikulua ez da gatazka honetan aplikatzekoa, baina ez dago soberan esatea bai manu hori eta, oro har, bai BEZari buruzko barne araudia europar

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
40/2012	R25/2016	2016-12-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-helbidea

araudiaren eta horren printzipio gidarien arabera interpretatu behar dela, eta Auzitegi Gorenak ebatzia du «erregimen ezberdinak eta kudeaketa eta funtzionamendu zuzenerako administrazio arduradun ezberdinak dituen zerga-sistema nazional baten aurrean, BEZaren neutraltasun-printzipioa egikaritzeko orduan barne araudiaz egiten den interpretazioa, horrek arautzen duenez itzulketaz kardu egingo den lurraldeko administrazio eskuduna zehaztea eta koordinatzea, ezin da bateraezina izan Europar Batasuneko araudiarekin; bateraezina izatekotan, ondorioa da ezin dela aplikatu lehentasunezko araudi harekin bateragarri ez den araudia (...)» (2013ko urriaren 17ko Epaia, 538/2012 zenbakidun errekurtsua, 3. ZO).

12.- Hona iritsita, ebatzi beharra dago eskumen-gatazka negatibo hau, eta diogu, beraz, Ekonomia Itunaren 27.Bat.Hirugarren eta 43.Lau.b) artikuluek diotena aplikatuz, 1 ENTITATEAren 2009ko ekitaldiko BEZa ordainarazteko eta itzultzeko eskumena Estatuko Zerga Administrazioari dagokiola, haren lurraldean baitzegoen sozietateak aitortutako zerga-egoitza, eta ez zelako bultzatu Ekonomia Itunaren 43. Bederatzi artikuluan ezarritako prozedura ZAEAk bidezkotzat jotako egoitza aldaketa sustatzeko.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

ERABAKI DU

1.- Adieraztea Estatuko Zerga Administrazioari dagokiola eskumena, 1 ENTITATEAri (IFZ: -----) 2009ko balio erantsiaren gaineko zergaren ordainarazpena eta itzulketa gauzatzeko eta entitatearen egoitza fiskalari eta esandako urteko BEZaren araudiari eta ordainarazpenerako eskumenari dagokionez, lurralde erkidean dagoelako entitateak aitortutako zerga-egoitza.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
40/2012	R25/2016	2016-12-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-helbidea

2.- Jarduerak amaitu eta artxibatuko dira.

3.- Erabaki hau 1 ENTITATEAri, Zerga Administrazioko Estatu Agentziari eta Bizkaiko Foru Aldundiari jakinaraziko zaie.